

4. KATEGORIAKO ARMA-TXARTELA: ESKAERA BERRIA, TXARTELA BERRITZEA, TITULARTASUNA EDO ARMA ALDATZEA

4. kategoriako armak etxetik kanpo eraman eta erabili ahal izateko, arma-txartelen bidez dokumentatuta egon beharko dute. Txartel horiek dagozkien armekin eraman beharko dira beti.

Armen **Erregelamenduaren 105. artikulua** adierazten duen bezala, baimen horiek eskatzailea eta armaren jabea erroldatuta dagoen udalerriko alkateak eman eta kenduko ditu. Arma horiek kirolerako eta/edo jolaserako erabiltzen dira, eta debekatuta dago beste edozertarako erabiltzea, bereziki ehizarako.

Baimenak A eta B motako txarteletan sailkatzen dira, Armen Erregelamendua onartzen duen 137/1993 Errege Dekretuaren arabera.

A MOTAKO TXARTELA. 4.1 kategoriako armetarako balio du:

- Tiro erdi automatikoa eta errepikakoa duten karabinak eta pistolak.
- Ekintza bikoitzeko errebolberrak, airez eta bestelako gas konprimitu batez eragindakoak, eskopetekin parekatzen ez direnak.
- Tiro egiteko sistema automatikoa duten aisialdi eta kirolerako armak.

A motako txartelek gehienez ere bost urteko indarraldia dute, eta ondoren berritu egin behar dira. Ezin izango dira mota horretako sei arma baino gehiago eduki.

B MOTAKO TXARTELA. 4.2 kategoriako armetarako balio du:

- Karabinak eta pistolak, arima lau edo marradunak, eta tiro bakarrekoak; (tiro bakarreko armak dira munizio-biltegirik edo kargagailurik ez dutenak, eta jaurtigaia eskuz sartu behar dutenak, errekamaran edo dagokion tokian).
- Ekintza bakarreko errebolberrak, airez edo bestelako gas konprimitu batez eragindakoak, eskopetekin parekatzen ez direnak.
- Jolas- eta kirol erabilerako armak, malguki batek eragindakoak.
- Kargagailurik edo munizio-biltegirik ez duten fusilak, karabinak, pistolak eta errebolberrak, eta gas-botilen, bateria elektrikoan edo antzekoen bidez funtzionatzen ez dutenak.

B motako txartelen baliozkotasuna iraunkorra da.

1.- Nork eska dezake txartel/lizentzia hau?

- Adinez nagusiak diren pertsona fisikoak (eskaera ezin da ordezkari baten bidez egin)
- 14-18 urteko pertsona fisikoak, guraso-ahala edo tutoretza duenaren baimenarekin

Baldintzak:

- Durangon erroldatuta egotea.
- Eskatutako dokumentazio guztia aurkeztea.
- Zigor-aurrekaririk ez izatea.
- Gaitasun psiko-fisiko egokiak dituela egiaztatzea, armak erabiltzean bere buruari edo besteei kalterik eragingo ez diela egiaztatzeko.

Armak edukitzeko eta erabiltzeko baldintzak

- Arma-txartela eskuratzen duten adingabeek adinekoren bat izan beharko dute alboan armak erabiltzeko.
- Arma edo txartela galdu edo eskualdatzen bada, Udaltzaingoari jakinaraziko zaio berehala.
- Inolaz ere ezin izango dute armarik izan, ez eta erabili ere, baldintza fisiko edo psikikoengatik galarazitakoek.
- Txartelak udal barrutian horretarako prestatuak dauden lekuetan erabiltzeko eta eramateko balio du bakarrik, eta ez du ehizarako baimenik ematen.
- Zehazki, debekatuta dago armak eramatea, erakustea edo erabiltzea:
 1. Beharrik gabe, edo axolagabekeriaz edo ausarkeriaz.
 2. Soinuak erreproduzitzeko aparatuekin konektatutako kasko edo aurikularrak erabiltzen diren bitartean.
 3. Edari alkoholunen, estupefazianteen, psikotropikoen, estimulatzaileen edo antzekoen eraginpean.

2.- Non eska daiteke txartela?

Txartela Herritarrentzako Arreta Zerbitzuko bulegoetan eskatzen da, dagokion erregistroa egiteko.

Barrenkalea 17, 48200 – Durango

**GARRANTZITSUA! – ARMA EZIN DAITEKE HERRITARREN ARRETA
ZERBITZUKO BULEGOETARA EKARRI
Hemen erregistroa egin eta dokumentazioa izapidetzen da.**

Erregistroa egindakoan, **Udaltzaingoa eskatzailearekin harremanetan jarriko da, arma udal-bulegoetara ekar dezan**, berau egiaztatu eta txartela lortzeko egin beharreko izapideekin amaitzeko.

3.- Beharrezko dokumentazioa

3.1- Arma-txartela eskatzen den LEHEN ALDIA bada:

- **Arma-txartelaren eskaera-inprimakia**, behar bezala beteta.
- **Interesdunaren NANaren edo identifikazio-agiriaren fotokopia**, eta haren legezko arduradunarena, adingabea bada.
- **Armaren erosketaren faktura**, erosketaren kasuan. Hala ere, arma partikular batengandik eskuratzen bada, arma eskualdatzeko edo lagatzeko agiria erantsiko da, eroslearen eta saltzailearen NANarekin batera.
- **Gaitasun psiko-fisikoari buruzko txostena edo ziurtagiria**, zentro homologatu batek emandakoa, eta sei hilabeteko indarraldia duena.
- **Aurrekari penalen ziurtagiria (negatiboa)**, Justizia Ministerioak emana:
 - Telematikoki: <https://sede.mjusticia.gob.es/es/tramites/certificado-antecedentes>.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko Justiziako Lurralde Gerentzia (Elkano kalea 9, 7.a, 48008, Bilbo): Eskatu zure hitzordua Justizia Ministerioaren Lurralde Gerentzien Aurretiko Hitzordu Zerbitzuaren bidez.
 - **Durango Udalari baimena eman** diezaiokezu datuak kontsultatu ditzan, tasarik ordaindu gabe eta Bilboko bulegora joan gabe.
- **Tasa ordaindu izanaren egiaztagiria – ZENBATEKOA INDARREAN DAUDEN UDAL-ORDENANTZETAN EZARRITAKOA DA.**

- **Banku-erakundea:** Kutxabank
- **Kontu zenbakia:** Durango Udal. Udal- diru-bilketa.
ES33-2095-0036-61-3239029204
- **Kontzeptua:** “Arma-txartela_ NAN zenbakia”
Adibidea : Arma-txartela_14852947B
- **Zenbatekoa:** [Dagokion urteko ordenantza fiskaletan ezarritakoa.](#)

3.2- Arma-txartela BERRITU behar bada:

5 urteko balioa izango duten "A" motako txartela eta armak berritzeko (4.2 kategoria), honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- **Arma-txartelaren eskaera-inprimakia**, behar bezala beteta.
- **Arma-txartelaren originala**.
- **Interesdunaren NANaren edo identifikazio-agiriaren fotokopia**, eta haren legezko arduradunarena, adingabea bada.
- **Gaitasun psiko-fisikoari buruzko txostena edo ziurtagiria**, zentro homologatu batek emandakoa, eta sei hilabeteko indarraldia duena.
- **Aurrekari penalen ziurtagiria (negatiboa)**, Justizia Ministerioak emana:
 - Telematikoki: <https://sede.mjusticia.gob.es/es/tramites/certificado-antecedentes>.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko Justiziako Lurralde Gerentzia (Elkano kalea 9, 7.a, 48008, Bilbo): Eskatu zure hitzordua Justizia Ministerioaren Lurralde Gerentzien Aurretiko Hitzordu Zerbitzuaren bidez.
 - **Durango Udalari baimena eman** diezaiokezu datuak kontsultatu ditzan, tasarik ordaindu gabe eta Bilboko bulegora joan gabe.
- **Tasa ordaindu izanaren egiaztagiria** – ZENBATEKOA INDARREAN DAUDEN UDAL-ORDENANTZETAN EZARRITAKOA DA.

- **Banku-erakundea:** Kutxabank
- **Kontu zenbakia:** Durango Udala. Udal- diru-bilketa.
ES33-2095-0036-61-3239029204
- **Kontzeptua:** "Arma-txartela_ NAN zenbakia"
Adibidea: **Arma-txartela_14852947B**
- **Zenbatekoa:** [Dagokion urteko ordenantza fiskaletan ezarritakoa](#).

3.3- Txartelaren TITULARRA ALDATUZ gero (arma saldu, laga edo eskualdatzeagatik):

Arma partikular batengandik eskuratzen bada, dokumentazio hau erantsi beharko da:

- Arma-txartelaren eskaera-inprimakia, behar bezala beteta.
- Armaren eskualdatze-dokumentua.
- Armaren eskualdatzailearen eta hartzailearen NANA.
- Aurreko titularrak (eskualdatzaileak) txartelaren baja eskatu duela egiaztatzen duen agiria.
- Tasa ordaindu izanaren egiaztagiria – ZENBATEKOA INDARREAN DAUDEN UDAL-ORDENANTZETAN EZARRITAKOA DA.

- **Banku-erakundea:** Kutxabank
- **Kontu-zenbakia:** Durangoko Udala. Udal- diru-bilketa.
ES33-2095-0036-61-3239029204
- **Kontzeptua:** “Arma-txartela_ NAN zenbakia”
Adibidea : Arma-txartela_14852947B
- **Zenbatekoa:** [Dagokion urteko ordenantza fiskaletan ezarritakoa.](#)

3.4- TXARTELEAN AGERTZEN DIREN ARMAK ALDATUZ gero:

Arma-txartel berean baimendutako laugarren kategoriako armen kopurua aldatu nahi bada, dela arma berria erosteagatik (gehienez 6, A motako txartelaren kasuan), dela erregistratutako armaren bat saldu eta suntsitzeagatik, BETIERE LIZENTZIA EPEAREN BARRUAN BADAGO, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- Indarrean dagoen **arma-txartela**.
- **Interesdunaren NANaren edo identifikazio-agiriaren fotokopia**, eta haren legezko arduradunarena, adingabea bada.
- Armaren **erosketa-faktura**, hala badagokio. Hala ere, arma partikular batengandik eskuratzen bada, arma eskualdatzeko edo lagatzeko agiria erantsi beharko da, eroslearen eta saltzailearen NANarekin batera.

Lizentzia iraungi bada edo indarralditik kanpo badago, 3.2 atalean eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko du.

4.- Eskaera egin ondoren jarraitu beharreko prozedura

- Eskaera egin ondoren, Udaltzaingoak arma egoera onean dagoela egiaztatu beharko du. Horregatik, interesdunarekin harremanetan jarriko da, hitzordu bat adosteko eta arma aztertu ahal izateko.
- Dena behar bezala badago, dagokion Alkatetzaren Dekretua eta arma-txartela emango dira.
- Ondoren, Dekretuaren berri eta ARMA-TXARTELA jasotzeko abisua emango zaio interesdunari.
- Ebazteko denbora: **30 lanegun (egun baliiodun) eskaera aurkezten denetik.**

5.- Araudia

Arma edukitzea eta erabiltzea honako araudi hauetan ezarritakoaren menpe dago:

- [137/1993 Errege dekretua, urtarrilaren 29koa, Armen Erregelamendua onartzen duen errege dekretua.](#)
- [INT/2860/2010 Agindua, abenduaren 27koa, airsoft eta paintball-eko jolas eta kirol jardueretan erabil daitezkeen zenbait armei aplikatzekoa zaien araubidean zehazten duen agindua](#)
- [39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen legea.](#)